

Tradiziozko euskal kantagintzaren ondarea

Euskal kultur erakundean eta Pirinio Atlantikoetako departamenduan

2016ko urriaren 27a, osteguna.

Subijana, Villabona.

-

Euskal kultur erakundea

Maite Deliart

--

Aurkezpen laburra

Euskal kantagintzaren ondareaz hitz egingen dut nere esperientzia profesionalaren bidez, misio kargudun bainaiz Euskal kultur erakundean (EKE) Uztaritzen, ahozko ondare sailan, artxibo soinudun eta ikus-entzunezkoetan, izan zaharrak ala garaikideak.

Ondare saila EKEn : historia eta bilakaera

EKE engaiatu da ondarearen sailan 1992an. 2007an, ondare materiagabeen edo inmaterialen berezitu da.

2007az geroztik :

- 1) Ahozko memoriaren bilketa eta balorapena : Eleketa programa (2015 urte hondarrean 307 lekuko filmatuak) 3 multimedia erakusten bidez baloratuak (Amikuztarrak mintzo 2009, Itsasturiak 2011, Soka 2015)
- 2) Ipar Euskal Herriko ahozko artxiboen balorapena (Pirinio Atlantikoetako departamenduaren obragintzapean) 2008an eta 2012az geroztik
- 3) Bestalde - eta hemen euskal kantagintzaren ondareaz ari gira gehien bat - EKEk ukan du Alemaniatik 2014an Lehen Mundu Gerlan preso-eremuetan grabatu 10 euskaldunen artxibo soinudunen kopia numerikoa (kantu eta narrazio). Ikerketa eta balorapen fasean dagon fondo arraroa.

2012az geroztik, ondarea/sorkuntzaren arteko harremanetaz gogoetak eta ikerketak bultzatzen ditu EKEk.

Euskal etnopolu bat izateko urratsak daramatza, kultura eta ikerketa uztartuko dituenak. Labelizazioa 2017 hastapenean lortzekoa du.

URTEZ URTE

I - Ipar Euskal Herriko ahozko artxiboen balorapena (Pirinio Atlantikoetako departamenduaren obragintzapean)

2008 : MuCEM (lehengo MNATP – Musée des Arts et Traditions Populaires) museoko ahozko inkestak Euskal Herrian 1947-1984 (43 ordu), 5NUM1/1048. **Museoko ikerlariak egin 17 inkesta ziren, bereziki bertularitza, kantua, maskarada eta pastoralen inguruan.**

Hauen kopia numerikoa lortu zuen Departamenduak eta bere lehen ahozko artxiiboak izan ziren.

Bazen ordukotz urte andana bat, euskal kultur eragile batzuek urratsak emanak zituztela hauen eskuratzeko (Jean Haritschelhar, Pantxoa Etchegoin besteak beste). Hauek ukan ondoan, Departamenduak galdegin zion EKeri artxibo hauen tratamendua egitea (deskribapena, datubasea sortzea, katalogatzea, publikatzeko baimenak lortzea).

(Ikus erreperitorio numerikoa interneten : <http://earchives.le64.fr/> -> sommaire des fonds -> Fonds sonores et audiovisuels -> Archives sonores du MuCEM -> Enquêtes orales du MuCEM (Ex-MNATP) en Pays basque –Sous-série 5NUM1).

2009 : **Artxibo zaharren begiratzeko eta balorazio programa** baten abiatzeko xedea baitzuen, Departamenduak manatu zion EKeri **Ipar Euskal Herriko fondo pribatuaren inbentarioa egitea** (ikus dokumentua « *Etat des lieux des archives sonores en Pays basque nord* ») 2009ko otsail-martxoan, hilabete bat eta erdiz.

26 fondo zerrendatuak izan dira, orotara 12 200 ordu. Kasik denetan kantu tradizionalak badira.

2011 : Departamenduak programa hori abiatu du **artxiboen numerizazioa bere gain hartuz**. Artxiboen kopia numerikoa Paueko eta Baionako artxibategietan babestuek dira (jatorrizko euskarriak ere, fondoak jabeek nahi ezker).

Jabeek ez dute ordaintzen haien artxiboen numerizazioarentzat eta kopia numerikoa eskuratzeko dute.

2012 : **Belokeko fondoak** izan da lehenik numerizatua 2011n (5NUM4/1-33, 19 ordu). Ondoko urtean, 2012an, EKEn tratatua izan da (deskribapena, datubase batean katalogatua eta indexatua).

Ikus erreperitorio numerikoa interneten : <http://earchives.le64.fr/> -> sommaire des fonds -> Fonds sonores et audiovisuels -> Fonds sonore et audiovisuel de l'abbaye Notre-Dame de Belloc.

Eliz kanta da hemen aipagarri : lehen bezperak euskaraz **Mugerren 1947an**, eliz koraleen biltzarrak. Bada ere **Aita Ignace Etchehandyk egin duen bilketa etnomusikologoa Henri Perseval grabatuz** : hunek zaharren ganik ikasitako euskal kantuak eman zituen (7 ordu). Hitzak idatzi zituen kaier batzuetan, Jean-Pierre Perseval semeak atxikitzen dituenak.

2012 eta 2013an : Irulegiko irratia (5NUM10/1-747, 873 ordu).

Irratiek lan handia egiten dute : kantu xaharrak biltzen dituzte adinekoak grabatuz.

Emankizun bat aipatzekoa da : Argitxu Canteroren *Gure arbasoak*. Adinekoak grabatu ditu 1992-2002 artean, horien artean kantari herrikoiak, orotara 203 audio kazeta, hots 406 ordu. Nafarroako gobernak 353 emankizun numerizatu ditu 2000an. Katalogatuak dira, ikus <http://www.fonoteka.com/> Mediateka : Nafarroako euskararen mediateka gunean.

Hari beretik, aipatu nahi nuke Laurent Loyatho (1925-1994) kantari herrikoiairen lekukotasuna, Gure Irratiko Luzien Etxezaharretak bildua 1982an (Entzun Ikus elkartearen fondoa, 4AV8). 10 kantu xahar ematen ditu, horien artean Hazparneko Xarlex koblakariaren bertsu hunkigarriak, preso zelarik Iruñan, Espainiara ihes egin baitzuen 1943an Afrikara joateko.

II – Alemaniako Lehen Mundu Gerlako euskal presoek grabaketak

Aitzin solasean erran bezala, EKEk eskuratu ditu 2014an Alemaniatik Lehen Mundu Gerla garaian preso-eremuetan grabatu 10 euskaldunen artxibo soinu-dun kopia numerikoa (kantu eta narrazio). Berlingo Etnologia Museotik eta Humboldt unibertsitatetik (paperezko dokumentazioarekin). Ez ditugu denak eskuratuak oraindik, pasa den udan ukan ditugu Humboldt unibertsitatetik eskas genituenak. Kantu bakar batzu falta zaizkigu Etnologia museotik.

Kasu huntan ere, MuCEM-eko artxiboentzat bezala, atzerritar ikerlariek bildu dute Euskal Herriko kantagintza tradizionala, aldi huntan imajinatzen eta ezagutzen ez genuen egoera eta kontestu zinez berezi batean.

Historia :

Prusiako Komisio Fonografikoa sortu zen 1915an. Alemaniako 175 preso-eremuetan zeuden jatorri aintzetako presoak ikusita, erabaki zuen horien grabatzea « mundu guziko herrialdeen » ahozko artxibo kolekzio baten sortzeko.

1915 bukaera eta 1918 bukaera bitartean, komisioko antropologo, hizkuntzalari eta musikologoak 29 preso-eremuetan ibili dira.

1916-1917 bitartean Hermann Urtel erromanista eta hizkuntzalariak 10 preso euskaldun grabatu zituen, Ipar Euskal Herriko 3 euskalkien ordezkariak :

- 5 lapurtar: Antoine eta Jean-Baptiste Suhas anaiak, Laurent Issuribehere, Pierre Labadie eta Jean-Baptiste Mendiburu;
- 2 baxenabartar : Jean Noël Irigoyen eta Pierre Mendiburu;
- 3 xiberutar : Joseph Jaureguiber, Pierre Ascarateil eta Saint-Jean Bidegaray.

Komisio Fonografikoak euskal kantak eta kontakizunak grabatu zituen. Interesanta da aipatzea zer zion Hermann Urtelek berak :

“Guk badugu frantziar euskaldunen kanten eta ipuinen bilduma eder bat, hoberena Salaberrirena da. (...) Berezia da euskaldunen musika. Benetako euskal kanta bati segituan antzematen zaio jatorria; doinu horiek bitarte melodiko motzetan mugitzen dira eta badirudi ez dutela inolako loturarik Europako beste herrialdeetako kantekin, albaniar kantekin ezik”.

Kantu gehienak jadanik bilduak eta publikatuak izan da : bilduma ezagunenak Sallaberry, Azkue, Florentin Vogel eta Julien Vinson-enak dira, baina kanta batzuk aurkitzen dira Pierre Narbaitzen Charamela liburuan edo berrikiago Senpereko Lapurdi 1609 elkarteak argitaratu dituen Manex Olhagaray itsasuar kantu kaieretan.

« *Adios Getharia ! Adios Bidarte !* » kantuari buruz dokumentazioa bilatzen ari nintzelarik, hunen letrak atxeman ditut **Herria astekarian** publikatuak 1968an : « Soldadu baten kantuak ». *Herriak* bere kaier xaharretan kausitu ditu sei bertsu : egilea gudari da Krimeako gerlan. Adibide hunek erakusten digu *Herria* astekariak betetzen duen funtzioa, anitz kantu eta bertsu argitaratzen baititu.

Artxibo horien ikerketa bultzatu nahian, EKEk partaidetza bat luzatu du Mondragon unibertsitatearekin : 2015-2016 ikasturtean ikusentzunezko 2 ikasleek aztertu dituzte Alemaniako artxiboak beren Gradu Bukaerako Lanarentzat eta dokumental bat sortu dute : *Maitia nun zira ?* deitua zeintan kanta pasarte batzu entzungai diren. EKEk zintzilikatua du Vimeo eta berriki zabaldua izan da.

Azterketa hau egin-eta ukan ditugu beste soinu batzu. Beraz lana oraindik osatzekoa da. Hala ere, erraten ahal dugu Berlingo Etnologia Museoa 78 kanta badaudela – osorik kantaz osatua da -, eta Humboldt unibertsitateko artxiboetan, berrogei bat.

Euskal kantagintzaren ondarean eta orohar euskal ikerketetan, funts hau altxor bat da. EKEren asmoa da artxibo hauen publikatzea funtsezko ikerketa bat eraman ondotik, kontestua eta testuingurua azalduko duen liburuxka batekin.

AZKEN HITZA

Aipatu ditudan artxibo guztiak argira atera dira numerizatuak izan baitira. Orain, teknologia berriei esker begiratuak dira eta ondoko belaunaldiei transmititzen ahal dira. **Orain ditugun erronka nagusiak : hauen aztertzea, ikertzea eta baloratzea.**

Maite Deliaert
Euskal kultur erakundea
2016-10-27